

## KEPA ALTONAGAREN *ETXEPARE, ALDUDEKO MEDIKUA*

### Liburuaren aurkezpena

Otsailaren 15ean, *Etxepare, Aldudeko medikua* liburuaren aurkezpena euskararen aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Akademiaren Egoitzan, Bilbon. Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Ludger Mees, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordeak; eta Kepa Altonaga egileak.

Liburu hau, Kepa Altonaga egileak 2003an irabazi zuen CAF-Elhuyar zientzia-dibulgaziorako sarian oinarrituz egin da. Eta kaleratu Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker.

«Jean Etxepare guztiz intrigagarria da». Horrela adierazten du Kepa Altonagak berak, hitzaurrean, liburuaren idazteko izan zuen arrazoietako bat:

nire begietarako Jean Etxepare idazle dotorea da, eta zorrotza. Berritzailea da. Eta irekia. Areago: Jean Etxepare idazle ekumenikoa da. Atseginez irakurtzen da.

Hark dioen bezala, Etxeparek eboluzionismoa euskararen munduan sartu nahi izan zuen; hori:

erabakigarri suertatu zitzaidan. Une horretatik aurrera gogo bizia eduki izan dut, idazleaz bestalde gizona ulertzeko, eta bai gizon horren ingurua ere.

Gogo horrek bultzaturik, Jean Etxepareren nortasuna eta ibilbidea ezagutu nahi izan ditu Altonagak. *Etxepare, Aldudeko medikua* liburuaren bitartez,

Jean Etxepare medikua bere testuinguruan ulertzen ahaleginduko gara, eta izatez, Aldudeko medikuaren bizitza eta obra izan dira liburu honen ardatza eta denbora-bidaierako aitzakia.

Izan ere, pertsonaren ibilbideaz eta pentsamenduaz baliaturik, zientziaren aspektu orokor batzuk eta garaiko Euskal Herriaren berri ematen du Altonagak bere liburuan.

\* \* \*

Kepa Altonaga Biologian doktorea da eta Zoogeografia eta Ornogabe Ez-Artropodoen Zoologia irakasten ditu Euskal Herriko Unibertsitatean. UEUKo kidea da eta UZEI eta Elhuyarrekin kolaboratu izan du. Euskaltzain urgazlea

da. *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (1998) eta *Armand David, pandaren aita* (2001) liburuak argitaratu ditu.

\* \* \*

Jean Etxepare Bidegorri (1877-1935) Argentinan jaio zen, *Mar Chiquita* herrian, baina haurra zela bueltatu zen Euskal Herrira. Medikuntza ikasi zuen Bordelen eta 1901ean, doktore-tesia aurkeztu. Garaiko idazle laiko bakarrenetarikoa izan zen. Gaztetandik hasi zen *Eskualduna* aldizkarian kolaboratzen. Bi liburu argitaratu zituen: *Buruxkak* (1910) eta *Beribilez* (1931). Haren lan guztiak bildu eta argitaratu ditu Piarres Xarritton euskaltzain osoak. Eskualtzaleen Biltzarreko burua izan zen eta *Gure Herria* aldizkariaren buruorde eta idazkari nagusia. Kanbon hil zen, 1935ean.

